

• ASTERO GAIA •

Palestinako gatazka

Elkartasuna diasporatik

Badira gure artean jaioterria eta ahaideak Ekialde Hurbilean dituzten palestinar eta juduak. Bi aldeekin mintzatu ostean, ondorioa galdera moduan: nola ikusiko dute berdin lurralde bera, bizitza osorako iheslari denak eta turista udatiarrak?

Testua eta argazkiak:
LANDER ARBELAITZ

ALATZ UGALDE



Gazaren aurkako azken erasoan, makina bat manifestazio egin ziren Euskal Herrian. Irudian, Bilboko elkarretaratze bat.

● Palestinako gatazka

ATZERRIRA zeraman autoaren leihotik 18 urte-ekin ikusi zuen azken aldiz Thamer Birawik Asira Ashamalia jaioterrria, Palestinan. Alde batetik Israelgo polizia sekretuaren presioak. Bestetik, ekonomia izozturik duen lurralde batek gazteak hezi eta merkaturatzeko dituen zailtasunak. Atzerrira joatea erabaki zuen, beraz, eta hainbat herrialde ezagutu ondoren, Tolosan bizi da egun. Etxetik atera zela hiru hamarkada igaro diren arren, ongi gogoan du olibondo sailak atzean utzi zituen eguna. Oroitzen du agurraren unea, ama etxean ezkutatuta negarrez aurkitu zuela eta haren “benetan joango al zara?” galderak arima zatitu ziola. Ordutik ezin izan du etxera itzuli eta han du bihotzaren zati bat.

Gipuzkoara duela hamalau urte iritsi zene- tik bost familia palestinar ezagutu ditu, eta bere hitzetan komunitate palestinarrik ez da Euskal Herrian. Hala ere, baieztatu du, inongo zalantzarik gabe, Israelekin duten gatazkan euskaldunen gehiengo handia palestinarren aldekoa dela. “Bai hemen, baita munduko leku askotan ere, jendea palestinarren alde dago, kausa palestinarra kausa justua dela sinesten baitu gehiengoak”. Palestinarrei nola lagundu galdetzeraz, babes ematera edo Israelen ekintzen aurrean elkartasuna adieraztera joaten zaio jendea Tolosan bertan. Era horretako atxiki- menduek asko pozten dute Birawi.

Dena den, bere hitzetan Israelen aldeko jendea ere bada hemen eta besteak beste, *El Diario Vasco* egunkariarekin haserre da: “Ikaragarria da nola estaltzen dioten ipurdia Israeli, beren irakurleek estatu horren aurpegi kriminala zein den ezagutzerik ez dute nahi”. Hemen bizitzen daramatzan urte guz- tietan ez omen du sekula irakurri aipatu egun- karian Israelen ekintzak nabarmen utzi dituen artikulurik. “Noizbait, Israelek egindako krimenen bat aipatu behar badu, bi aldeei ematen die egurra”.

Israelen defendatzaileak ere, ordea, komu- nikabideen kexu dira. Sinagoga ondoan, Baio- nako Juduen Elkartean daukan apartamen- tuan hartu gaitu Knafo Méir errabinoak, Euskal Herriko juduen ordezkari gorenak. Méir bera ez dago ados hedabideek Gazaren kontrako erasoaldiari eman dioten trataerare- kin. “Hedabideek irudi ikusgarriak nahi dituzte, horrela ikuslea kolpatu eta zer pentsatua emateko”. Bere iritziz, Mendebaldeko hedabi- deek hildako palestinarrik soilik erakutsi dituzte egunero, eta hildako israeldarrei berriz ez diete trataera seriorik eman.

Zenbaki ofizialen faltan, Euskal Herrian 120 bat familia judu bizi direla kalkulatu dute Baionako Juduen Elkartean, ia denak Ipar Euskal Herrian. Komunitateko kiderik gehie-

nak sefardiak ziren –1492an Gaztelako Erre- sumatik eta geroago Nafarroakotik kanporatu zituzten juduen ondorengoak–, baina urteekin hainbat lekutako kideak elkartzen joan zaizkie. XV. mendean Bidasoaren bestaldean pausatu zirenean “sinesdun berriak” ezizena jarri zie- ten arren, askok ezkutuan eutsi zieten tradizio eta ohitura juduei. Egun, ospakizun bereziak aparte utzita, Sabath egunetan gutxienez bil- tzen dira, otoitz egin eta gazteenei beren kul- tura irakasteko.

Knafo Méir-ek Casablancan (Maroko) jaiotako guraso sefardiak ditu, bera Parisen jaiotako eta Israelen errabino ikasketak egin ostean, lau urte daramatza Baionan erlijio jardunean. Bera bai, bera izan da azkenaldian Israelen. Gurasoak han ditu bizitzen orain eta Jerusalemeko joan ohi da oporretan, ia urtean behin. Asko gustatzen zaio herrial- dea, klima eguzkitsua gain, bertako giroaga- tik. Ongi etortzen ei zaio atsedean hartu eta otoitz egiteko. Errabino gaztea da, 30 urte ditu eta Israelen defendatzaile sutsua da, berak hala aitortuta.

Harro kontatu digu juduek Lapurdiko portu honetatik sartu zutela Europa osora kakaoa lehen aldiz Hego Ameri- ketatik ekarrita. “Kokatu diren herri, gune edo herrialde bakoitzari ekarpe- nak egiten jakin izan du herri juduak”, dio. Gizartean integratuta daudela dio eta horren arrazoietako bat, herritarrei irribarre egiten jakin izan dutela.

“Europar Batasunak erosi egin nahi gaitu bere diruarekin eta honela, guk Troiako zaldiari ateak irekitzea”

THAMER BIRAWI

Errealitatea, desadostasun iturri

1948an, Israelek ordura arte Britainiar inperioaren menpe zegoen Palestina- ko lurraldearen %55 inguruan estatua eratu eta independentzia aldarrikatu zuen. Ordutik, makina bat alditan tindatu da lurzo- rua gorriz Ekialde Hurbileko herrialde ezber- dinetan. 60 urteren ostean, azken gudaldi gogorra orain hiru hilabete hasitakoa da. Iazko abenduaren 27an ekin zion Israelek Gazako lurraldearen aurkako erasoaldiari. 23 egunetan, airez, itsasoz eta lurrez bonbardatu zuen Gazako lurraldea Hamas erakunde- a desegin nahian. Palestinako Aginte Nazional- ko Osasun Ministerioaren datuen arabera 1.330 palestinar hil zituzten, erdiak baino gehiago zibilak, eta beste 5.500 zauritu. Hamasek etxean eginiko koheteak jaurtitzen jarraitu zuen Israelgo lurraldera epe horretan ere. 14 israeldar hil ziren guztira, 11 soldadu eta hiru zibil. Beste 518 zauritu ziren. Egun, bi aldeek su-etena sinatuta badute ere, elkarri erasoan jarraitzen dute.

“Gerra guztiak dira mingarriak, bi aldeent- zat... –hasi da Knafo Méir–; baina albo batean Israelgo Estatua dago, koheteak jasan dituen eta denbora luzean mehatxatua; eta



Thamer Birawik beti darama gainean Palestinako erresistentziaren sinbolotzat hartua den Handala pertsonaiaren sinboloa, olibondo egurrez egina. Najj Sam Alim marrazkigilea (irudiaren egilea) Londresen tirokatuta hil zuten.

bestean, Hamasekoak daude. Hauek ez dute bakerik negoziatu nahi eta beraien erruz, guda honen preso izan diren Gazako biztanleak dira biktima. Israelek ez zuen inondik ere gerra hau egin nahi, baina Hamasek berearekin jarraitu zuen eta azkenean, gertatu dena gertatu da”.

1.330 hildako ez ote zaion neurritz kanpoko erantzuna iruditzen galdetuta, hildako bakoi-tza asko dela erantzunez saihestu du Méir-ek itauna: “Hildako bakarra gehiegi da; 1.330 palestinarrera drama ikaragarria da, Israelgo hildakoena drama ikaragarria den bezala”. Behin elkarrizketa amaituta, Israelen erantzuna “pixka bat basatia” (frantsesez *“un peu brutal”*) izan zela komentatu du, baina beti ere, erantzuna justifikatuta zegola.

Thamer Birawik badu barnean bakean uzten ez duen sentimendu bat: Nolabait Israelgo politikaren partaide izanarena. “Biz-

tanlerik gabeko lurrak nahi ditu Israelek, horregatik behartzen ditu gazteak beren herria uztera. Hori Israelen politika ofiziala da eta esan liteke ni ere horren partaide izan nintzela”. Pentsamendu hori behin eta berriro dator kio burura, eta agian hori izango da arrazoi-tako bat, ahal duen neurrian Palestina diasporatik lagundu nahi izateko. Egun, zenbait hedabiderekin kolaboratzeaz gain, hilean pare bat alditan Euskal Herriko gaztetxe eta elkarteetan hitzaldiak eskaintzen ditu.

Irungo Hazia elkarteetan 40 bat pertsonaren aurrean, okupazioaren egoera salatu eta azaltzen egin ditu hiru ordu. “Gutziz blokeaturik dagoen lurralde batetik, non janaria, lehengaiak eta medikamentuak sartzeko ere ikaragarritzko arazoak dauden, koheteak jaurtitzen direlako kexu dira? Baina zer beste egin dezakegu? Gure seme-alabak gosez nola

● Palestinako gatazka

hiltzen diren ikusi?”. Birawiren ustez, Israelek gauza bakarra egin du: herri palestinarra suntsitzeko metodo berriak etengabe asmatu, eta hor sartu ditu Gazako blokeo ekonomikoa eta azken erasoaldia. “Herri baten suntsiketarik sortutako estatua da Israelgoa, eta horrek erakusten du geneetan daramala jarrera kriminal hau”.

Bere hitzetan, Israelen arazorik handiena palestinarren bihotzetan erresistentziak duen babesa da, 60 urteko okupazioaren ostean oraindik borrokan jarraitzeko duten borondate tinkoa da. Horrek makurraraziko du Israel, bere ustez.

Antijudaismoa gora

Frantzian, Israel eta AEBen ondoren munduan judurik gehien bizi den hirugarren estatuan, Gazaren kontrako erasoaldiak juduen aurkako jarrera nabarmen bultzatu duela aipatu du Baionako errabinoak. Euskal Herrian aipatzeko moduko ezer gertatu ez bazaie ere, Okzitaniako Tolosan eginiko manifestazio jendetsuetan sinagoga bat erretzeaz gain, “juduei heriotza!” bezalako garrasiak bota zituztela dio. “Hemen ez dugu arazorik izan eta eskerrak, ongi integratuta gaudenaren seinale, baina Israel horrelako guda batean sartzen den bakoitzean asko sufritzen dugu diasporan bizi garen juduok”.

Errabinoak diotenaren harira, zenbait analista politikoren ustez Gazako azken erasoek nazioarteko iritzi publikoaren balantza palestinaren aldera okertzeko balio izan dut eta hori dute palestinarek euren armarik indartsuena. Israelek kazetarien sarrera debekatu izana gogor kritikatu dute nazioartean, eta hori akatsa izan dela aitortu du errabinoak. Bere ustez, ez zuten zertan inolako sarrerarik debekatu, Israelek ez baitzuen ezkutatzeke ezer. Horrez gain, arrazoiketa originala egin du Knafok neurri horri buruz: “Gerra oso gogorra izan zen eta segurtasun neurri bat

izan zela uste dut; Israelek kazetariak babes-teko hartu zuen neurri hori”. Mugarik Gabe-ko Kazetarien arabera, bi kazetari hil zituzten Israelgo soldaduek.

Gazan barnean zeuden zenbait kazetari eta zibilek hartutako irudiek ordea, Israelek ezkutatzeke moduko ekintzak egin zituela erakutsi dute. Zibilen aurka debekatutako armak erabili izana frogatu dute, beste zenbaiten artean fosforo zuria. Nazioarteko zenbait erakunde urtarrilaren 5ean salatu zuten aipatu materiala erabiltzen ari zirenean, eta argazki-frogak makina bat aldiz ukatu ostean, urtarrilaren 23an, azkenean, Israelgo militarren bozeramaileak, fosforo zuria erabili izana aitortu zuen.

Lobby sionistek munduan duten botereaz harrituta mintzo da. “Gezurra da juduok hedabideen gainean kontrola dugula, bestela ikusi zenbat hildako haur palestinarrak erakutsi dizkiguten hedabideek azken hilabeteetan”. Hori ezin omen zatekeen gerta hainbestetan aipatzen den kontrol mediatikoa egiazkoa balitz. Baina, diotenaren kontra, eta beste askoren artean, munduko hiru hedabide eta ikuskizun elkarterik handien jabe dira: Time Warner Inc., Walt Disney eta Rupert Murdoch-en News Corporation.

“Israel horrelako guda batean sartzen den bakoitzean asko sufritzen dugu diasporako juduok”

KNAFO MÉIR

Urruntasunaren distantziarik

Bi protagonistak ados daude gauza batean: “Munduko lurrik borrokatuena” bezala ere bedekinatua izan den eremutik 3.500 kilometrorra bizitzeak analisirako gaitasun handiagoa ematen duela. “Okupazioaren eguneroko bizitza gogorretik urruntzeak laguntzen du ideia, soluzio eta proposamen berriak pentsatzeko orduan; beste optika batekin ikusten da gauza”, dio palestinarrak. Hala ere, kanpotik gauza modu batean ikusi arren, barnean bizitzea beste gauza bat dela dio. Méir ere beste perspektiba batez mintzo da. “Israelen kezkarik nagusia ia etengabe segurtasuna da; kanpotik zabalago ikusten dugu gauza. Diaspora-

Olaberriako zirkuitua
GIDA ESKOLA • KARTINGa

Gainera auzoa, z/g
20212 OLABERRIA
(Gipuzkoa)
T 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com



ko kideok Israel babestu behar dugun arren, kritikoak ere izan behar dugu eta ezin dugu edozer gauza itsu-itsuan onartu”.

Egoera ez da erraza. Knafo Méir-ek nazioarteko estatuen laguntza eskatzen du palestinarrekin duten arazoa konpontzeko. Nazioartearrekin nekatuta eta nazkatuta dago Thamer Birawi ordea. Orain aste batzuk, Egipton Gaza berreraikitzeke biltzarrean, 4.135 milioi euro bildu zituzten herrialde ezberdinek. “Palestinak ez du dirurik behar, Palestinak askatasuna eta estatu propioa behar ditu, eta aspalditik gainera. Europar Batasunak bere diruarekin erosi egin nahi gaitu eta honela, guk Troiako zaldiari atea irekitzea. Eskatzen diguten gauza bakarra Israel aitortzea da, ez bere aurka borrokan jarraitzea. Ez dira konturatzen hori ezin dugula onartu egungo egoeran”. Bere hitzetan, “Nazioarteko Komunitatea” deituriko herrialde horiek berak izan ziren Israel sortu zutenak, beren herriari sufrimendua besterik ekarri ez dion estatua.

Israel legearen gainera dagoela onartu dutela, eta palestinarrek ez dutela onartuko Israel estatu berezia denik dio, gainontzeko estatu guztiek baino eskubide gehiago dituen, nahi duen guztia egin eta gero ordaindu beharrik ez duena. Israelgo okupazioaren, arrazismoaren eta Israelgo krimenen aurkako erresistentzia ikusten du soluzio bakar. Bere

“Gerra oso gogorra izan zen eta [kazetariari Gazara sartzen ez uztea] segurtasun neurri bat izan zela uste dut; Israelek kazetariak babesteko hartu zuten neurri hori”, dio Knafo Méir-ek, Baionako sinagogan.

hitzetan, ez da beste soluziorik asmatu oraindik. “Eman adibide bat, non herri zapaldu bati, borrokatu gabe, zapaltzaileak bere eskubide guztiak bueltan eman dizkion. Ez dago”.

Gazako erasoaldia amaitu berritan, bakearen eta elkarrekiko errespetuaren aldeko mezua bidali nahi izan zuten Knafo Méir-ek eta Baionako talde islamiarreko buruak sinagogako lorategian. Bertan, bi komunitateetako ordezkariak “Bakearen Zuhaitza” landatu zuten. Horrelako ekimen gehiagoren beharra azpimarratu du errabinoak.

Nekez uzten du bere sorterria sustraiak han dituenak, baina begi bat ekialdera jarrita, eguneroko bizitzan murgilduta bizi dira biak. Knafo Méir sinagogako lanetan, eta Thamer Birawi idazle, analista politiko eta euskara, ingelesa eta arabiera irakasteko bere akademian lanean. Belaunaldi berriek bakea eta justizia ezagutuko dutelakoan dago Birawi. “Palestinarrok gauaren amaiera behingoz iristea nahi dugu, nahiz eta badakigun ziurrenik gure begietara ez dela eguzki izpirik iritsiko. Hori onartzea triste da, baina barne-poza ematen digu jakiteak gure seme-alabek, hainbesteko sufrimenduren ostean, azkenean, eguna argitzen ikusiko dutela”. Etorbizunaren aurrean baikor da. Horregatik jarri zioten emazteak eta berak hiru urteko alaba gazteenari Amal izena, galtzen den azken gauzari arabieraz ere *esperantz*a esaten baitiote. ■